

Corner-charger

Diru-iturriak

Gure enpresak diru-sarrera ezberdinak izango ditu, eta bi sarrera mota nagusi bereizteko gai izango gara: kargadoreak erabiltzeko txartelen kuotak eta kafetegiko mozkinak.

Zerbitzuen hileko kuota 19,99€-koa izango da, horretarako txartela eskuratu behar da. Horrela, bezeroek mugikorrek kargatzeko aukera izango dute hilean zehar. Beste aukera bat, txartelik ez dutenentzat, 2 euroko sarrera ordaindu beharko dute mugikorrek kargatzeko eta kargadore gelan sartzeko.



Gure lokala 9:00etatik 21:30era egongo da irekita, baina, beranduago ere mugikorrek kargatzeko zerbitzua eskainiko dugu. Horretarako, kaxa elektroniko bat egongo da kanpoan, non txartela pasatuz, mugikorra kargatzeko aukera izango duten bezeroek 21:30etatik goizeko 9:00ak arte.

Publizitatea sortzeko, kartelak diseinatuko ditugu gure negozioaren berri emateko. Irudi eta kolore deigarriekin jendearen arreta erakartzeko. Gainera, sare sozialetan bideo eta argazkiak partekatuko ditugu, kolore eta esaldi deigarriak erabiliz, bezeroak gure enpresa gogoratzeko. Facebook, Instagram eta TikTok bezalako sare sozialetan argitaratuko ditugu.

Prezio finkoak izango dira beti.

Hasierako inbertsioak barne hartzen dituzte lokala, saltzeko produktuak, altzariak, ordenagailuak, instalazioak (komunak), eta abar.

Bestetik, enpresaren bazkidea izan nahi baldin badute, 16 urte baino gehiago izan behar dute. Bazkide izateko, txartel kuota bat ordaindu beharko da, lehen esan dugun bezala hileroko 19,99€ ordaindu beharko dute. Gero, txartela ez dutenek 2 euroko sarrera ordaindu beharko dute.

Bazkideak, txartela daukatenak, bi hilabetetan gure zerbitzuak hamar aldiz baino gehiagotan erabiltzen dituztenek, deskontuak izango dituzte kafetegian. Bestalde, onura batzuk eskainiko dizkiegu guretzako bazkide berriak egiten laguntzen digutenei, hala nola, hainbat deskontu eskainiko dizkiegu kontsumizioetarako kafetegian eta baita kargadoreak erabiltzeko ere.